



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

TIARA MENDIRA ZIZAREEN BILA. Nahia Beunza Erro.

Bazen behin familia bat Baztanen: ama Saioa, aita Mikel eta beraien alaba Miren. Guztiei gustatzen zitzaizkien animaliak. Etxearen ondoan baratze bat zeukaten eta Tiara izeneko oilo bat. Miren 4. mailara joaten zen eta 9 urte zeuzkan. Berak ematen zion jaten oiloari beti. Tiarak artoa jaten zuen baina ez zitzaion asko gustatzen. Tiarak lur-zizareak maite zituen baina Mirenek ez zekien.

Egun batean, Miren eskolara joan aurretik Tiarari janaria ematera joan zenean, Tiara ez zegoen eta Mirenek oihukatu zuen larri:

—Ama, aita, Tiara desagertu da!

Mirenek izugarri maite zuen Tiara jaio zenetik. Tiarak orain 10 hilabete zituen. Miren oso triste joan zen eskolara. Egun horretan azterketa zeukan. Miren oso azkarra zen baina egun horretan, hain triste zegoenez, 6,5 ateratu zuen.

Tiara, bitartean, lur-zizareak bilatzen ari zen. Tiarak pentsatu zuen:

—Orain dela 10 minutu euria egin du eta, gainera, ez dago eguzkirik, orain lur-zizareak aterako dira!

Tiarak lur-zizare bat ikusi zuen eta jan egin zuen. Handik hona, hemendik hara, Tiara galdu zen eta, halako batean, ez zekien non zegoen.

Mirenek oso triste jarraitzen zuen Tiarak egun oso bat zeramalako desagertuta. Tiarak plastiko bat aurkitu zuen eta, hain azkarra zenez, zizareak hor gordetzea erabaki zuen. Horrela Mirenek ulertuko zuen zizareak gustatzen zitzaizkiola. 20 zizare aurkitu zituen eta plastikoan gorde zituen. Etxera itzultzea erabaki zuen, baina ez zekien non zegoen bere etxea. Mendi horretan lau bide zeuden. Lehenengotik abiatu zen eta baserri handi bat aurkitu zuen. Bigarrenetik joan zen eta jatetxe bat aurkitu zuen. Azkenetik ibiltzen hasi zen. Argi bat ikusi zuen eta zoriontsu oihukatu zuen:

—Nire etxea! Azkenean aurkitu dut!

10 minutu ibili ondoren bere etxera iritsi zen baina, gaua zenez, Miren ohean zegoen. Hurrengo egunean, eskolarako bidean, Mirenek Tiara ikusi zuen eta oihukatu zuen:

—Ama, aita, Tiara agertu da!

Tiarak zizareen poltsa erakutsi zien eta dena ulertu zuten. Hortik aurrera egunero, eskolara joan baino lehenago, Tiara eta Mirenek zizareak bilatzen dituzte mendian eta Tiarak ez du inoiz gehiago ihes egin.